



# ikastolak



## IÑIGO ARITZA IKASTOLA ALTSASU



Inklusibitatea lantzen ari gara ikasturte honetan.

# Aniztasunak aberasten gaitu!

INKLUSIBITATEAREN GAIA LANTZEKO PROIEKTU BERRI BAT JARRI DUGU MARTXAN, 'GUZTIOK GARA OINEZ' IZENBURUPEAN.

Testua eta argazkiak Iñigo Aritza Ikastola

**A**urten Iñigo Aritza Ikastolan Nafarroa Oinez 2018 ospatzen ari gara "BIZI" lelopean. Euskara bizi, kultura bizi, Ikastola bizi, herria bizi... eta inklusibitatea bizi! Gure gizartea anitza delako eta aniztasunak aberastu egiten gaituelako.

Baina zer da inklusibitatea bada? Inklusibitatea pertsona guztiak aintzat hartzean datza. Denok desberdinak garen arren, guztiontzako eskubide berberak bermatzea.

Inklusibitatearen gaia lantzeko proiektu berri bat jarri dugu martxan: "Guztiok baga, oInez". Proiektu honek helburu nagusi bat du: inklusibitatea bermatzea gizarte inklusiboa jomuga nagusia den testuinguruan. Orain-

goan ikastola espazio fisikotik atera eta aisialdian benetako pausu kualitatibo bat emateko eronka abian dugu. Honela, Oinez inklusibo bat diseinatu eta garatzeko apustua egin dugu. Oineza esaten dugunean, ospakizuna eta mugimendua bera bere osotasunean biltzen ditugularik.

Urtean zehar antolatu diren jarduerak eta proiektuetan inklusibitatea kontuan hartzen ahalegintzen ari gara, gizartean gai honekiko sentsibilizazioaren zabalkuntza lagunduz. Inklusibitatea zehar lerroa bilakatu da gure jardunean eta asko dira dagoeneko egin diren internetzioak: jarduerak eta ekitaldiak zeinu hizkuntzaz jarraitzeko aukera iza-



Argazki lehiaketaren kartela.

ten ari gara, baita begizta magnetikoa eta soinu amplifikadoreak erabiltzeko aukera ere, euskarri grafiko guztietan irakurketa erraza edota piktogramak erabiltzen ditugu, praktika onen katalogoa sortu dugu ([www.nafarroaoinez.eus/Argazkiak/Contenidos/borobikakl.pdf](http://www.nafarroaoinez.eus/Argazkiak/Contenidos/borobikakl.pdf)), web orrialdean edukia modu desberdinetara aurkezten da pertsona guztientzat eskuragarria izan dadin...

Baina gaia zeharka lantzeaz gain, inklusibitatearekiko sentsibilizazioa lantzeko jarduerak zehatzak ere proposatzen ari gara, honen adibidea, martxan dugun "Argazkien bidez BIZI inklusibitatea" jarduerak. Argazkiak aitzakiatzat hartuz, inklusibitate egoerak identifikatzeko gonbitea luzatzen dugu. Jardueran edonork har dezake parte.

Gure web orrialdean ([www.nafarroaoinez.eus](http://www.nafarroaoinez.eus)) informazio guztia aurkituko duzue, baina Nafarroako 15 Ikastoletan ere jarri da martxan eta bukaera emateko sentsibilizazio tailerrak burutuko dira 15 Ikastoletan gurekin elkarlanean ari diren CERMÍN, EUNATE, ONCE, IBILI eta BIAK BAT erakundeen eskutik.

Asko dira inklusibitateari begira eman beharreko urratsak. Gu bidea egiten hasi gara dagoeneko... Gure bidelagun izan nahi duzu? ●

### OINEZ EKIMENAK

#### Kultur erronda arrakastatsua

**ALTSASU** - Nafarroa Oinezek da soilik urriaren 2lean burutuko den festa erraldoi bat, urte guztian zehar Iñigo Aritza Ikastola osatzen dugun lau herrietara euskara eta euskal kultura indartzeko aukera baino. Neguko kultur erronda amaitu berri dugu eta argi esan genezake, zinez arrakastatsua izan dela. Urtarrilaren 12an hasi ginen Castillo Suarezren *Mainimikirri* liburuaren aurkezpenaz Urdiainen. Horrekin batera, *Txi-mino Jakintxua* antzezlanaz ere gozatu ahal izan zuten bertaratu-takoek. Urtarrilaren 20an Olaztín Joseba Arlegi izan genuen lagun, AEBetako Yosemite bizitako abenturen berri eman zigun bere argazki eta bideoez lagundurik. Urtarrilaren 26ean "Ni neu Galtzeta" liburua aurkeztu ziguten Iker Uribe eta Yoana Zigandak eta ondoren Zubiondo Kantuzek lagundurik pintxo potea burutu genuen herritik barna. Azkenik eta kultur erronda honi amaiera emateko otsailaren 3an, Eñaut Elorrietak Iortia aretoa txiki utzi zuen bere bakarkako emanaldi akustikoaren bidez. -I.A.I.

#### Hurrengo ekitaldia, BIZI mendi duatloia


**ALTSASU** - Oinez pausoka pausoka egiten delako, ondorengo pausoa mendi duatloian jarri du Nafarroa Oinezak. Horrela, ikastola inguruko paisai ederrez gozatzeko aukera izango dute parte hartzaileek. Mendi duatloia bikoteka izanen da, hau da batek bizikletako saioa egingen du eta besteak korrika. Guztira 30km izanen ditu, 23 bizikletaz eta 7 korrika, hala ere lasterketa herrikoia da eta horregatik ostean herri bazkari herrikoia ere izanen da. Lasterketan izen emateko [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) helbidearen bitartez egingen da eta herri bazkariara joan nahi duen orok Iñigo Aritza Ikastolan zein Olazti, Ziordia, Altsasu eta Urdiango tabernetan tiketak erosiz etorri ahal izanen du. Korrika zein txirringaz, euskarari arnas emanez! -I.A.I.

#### LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Zer da inklusibitatea?
  2. Non ikusi daitezke ikastolan sortu dituzten piktogramak?
  3. Zein da inklusibitatea lantzeko antolatu den jarduerakoa bat?
- Bidalizuen erantzunak [nie03@ikastola.eus](mailto:nie03@ikastola.eus) helbidera, zure izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta ikastolaren izenarekin batera.

#### IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Maialen Migeltorena (Baztan Ikastola).  
OINEZ BALEA (2): Izadi Gonzalez (Paz de Ziganda Ikastola).  
INTER-SPORT IRABIA (baloia):  
Asier López (Ibaialde Ikastola).



Datu Pertsonalak Babestari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitortu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.